



AsteriskNOW instalatu eta konfiguratzeko gida

Andoni Herboso Unibaso

Dolaretzeko IRALE

Egilea: HERBOSO UNIBASO, Andoni

IRALeren R400 ikastaroan sortutako materiala

2014-2015 ikasturtea

Aurkibidea

1.	Sarrera.....	3
2.	Asterisk aplikazioa.....	5
2.1.	Asterisk aplikazioan oinarritutako distribuzio batzuk.....	7
○	FreePBX.....	7
○	Elastix.....	7
○	Tribox.....	8
○	PBX in a Flash.....	8
○	AsteriskNOW.....	9
3.	AsteriskNOW nola instalatu.....	10
3.1.	VirtualBox eta AsteriskNOW.....	11
3.2.	AsteriskNOW instalatzeko parametroak.....	19
4.	AsteriskNOW nola konfiguratu.....	25
4.1.	Administratzailearen panela.....	26
○	Luzapenak.....	32
○	Taldeak.....	43
○	SIP tronkalak.....	45
○	Sartzen diren deiak.....	64
○	Irteten diren deiak.....	68
4.2.	Erabiltzailearen kontrol-panela.....	74
4.3.	Operadorearen panela.....	79

1. Sarrera

Gida honetan, gure enpresan telefonia-zentro bat nola instalatu eta konfiguratu azalduko dugu. Horretarako, aplikazio asko daude merkatuan; baina guk **AsteriskNOW** aukeratu dugu: errendimendu handikoa da, doakoa eta **IP** telefonian oinarritua.

IP (*Internet Protocol*) **telefonía** Interneten bidez ahotsa bideratzen duten baliabideen multzoa da. IP telefoniak banda zabaleko konexioa edo Interneteko konexioa erabiltzen du, Internet bidez doako nahiz ordaindu beharreko deiak egiteko.



IP telefoniak, ahotsa seinaleztatzeko, **SIP** (*Session Initiation Protocol*) protokoloa erabiltzen du. IETF MMUSIC Working Group-ek sortu zuen, helburu honekin: erabiltzaileen saio interaktiboetan dauden multimedia-elementuak (birtualizazioa, *online*-jokoak, berehalako mezularitza, ahotsa, bideoa...) hasteko, aldatzeko eta bukatzeko estandarra izatea. Beste batzuk egon arren (H232, IAX, IAX2...), arrakastatsuen eta estandarizatuena da gaur egun.

IP telefoniaren beste ezaugarri inportante bat **kodekak** dira (**codec** hitza **coder-decoder** hitzen lehen silabetatik dator). Software edo hardware bidez garatzen da, eta datu-jario edo seinale bat kodetzeko ahalmena du; esaterako, Internet bidez bidaltzeko. Aldi berean, kodetutako datu horiek jaso nahi dituenak kontrakoa egin dezake kodekekin; hau da, sortu den datu multzo kodetua deskodetu, eta, horrela, datu multzoak duen formatua exekutatzeko beharrezkoa den programa erabili.

Kodek gehienek datu galerak dituzte, saretik errazago bidaltzeko ahalik eta tamainarik txikieneko fitxategiak lortu behar baitira. Galerarik ez duten kodekak ere badira, baina, askotan, ez du merezi haiek erabiltzea. Izan ere, asko handitzen da tamaina; eta ez hainbeste kalitatea. Hala ere, batzuetan hobe da galerarik gabeko metodoarekin kodetzea, behin eta berriz bidali behar den artxiboak, behin eta berriz kodetuta, azkenean kalitate gehiegi galduko baitu.

IP telefonian, kodek (**CoDec**) hauek aurkituko ditugu, besteak beste:

- G.723.1
- GSM
- G.711 u-law (Estatu Batuetan eta Japonian oso erabilia da IP telefonian)
- G.711 A-law (Europar asko erabiltzen da)
- G.726
- ADPCM
- slin (16 bit Signed Linear PCM)
- LPC10
- G.729A
- SpeeX


2. Asterisk aplikazioa

Asterisk aplikazio bat da, IP telefoniaren bidez komunikazio-zerbitzu bat osatzeko erabili dezakeguna. Sarritan, plataforma honekin lotutako zenbait termino edo definizioekin nahasteak sortzen dira.

Halako arazorik gertatu ez dadin, saiatuko gara lehendabiziko atal honetan software honen zoko guztiak argitzen, ezinbestekoa baita gure lana aurrera ondo eramateko.



Asterisk software librea da, Digium enpresaren Mark Spencerrek C lengoian sorturikoa.



Berez, elementu honek ez du inolako ahalmenik telefono-lineak eratzeko edo deiak egiteko; horretarako, pauso batzuk eman behar ditugu: jaitsi, konpilatu, instalatu eta konfiguratu. Gainera, egite guztiak komando-lerroaren bidez osatu behar ditugu, eta hori ere eragozpena da.

Hala ere, oinarrizko Asterisk behin ondo ezagututa, aukera ematen digu edozein komunikazio-zerbitzu martxan jartzeko.

Asterisk Linuxeko edozein distribuziotan instalatu dezakegu (Debian, Ubuntu, Mint, CentOS, Open Suse, RedHat...), eta sistema horretan atera diezaiokegu etekin handiena; baina beste hainbat euskarri ditugu Mac OSen eta Windowsen egiteko. Beraz, edozein ordenagailutan sor dezakegu komunikazio-zerbitzu osoa.

Titulazioak

*Asterisken munduan sartu nahi duzuenontzat, Digium enpresak **bi ziurtagiri ofizial** ematen ditu, erakusten duzuen mailaren arabera. Biek aitortzen dizute gaitasuna *Asterisk* zerbitzari bat komando-lerroaren bitartez instalatzeko eta konfiguratzeko, baina bi mailatan.*

➤ **dCAA** (*Digium Certified Asterisk Administrator*)

Ziurtagiri honek *Asterisken* oinarrizko ezaguera teknikoak menperatzen dituzuela adierazten du: *Asterisk* komunikazio-zerbitzu gisa prestatzea, eragiketak komando-lerroaren bitartez egitea, IP telefoniako esparru garrantzitsuenak ezagutzea...

Titulu hau lortzeko, Digiumeko web-orrialdean apuntatu beharko zarete; dohainik da, baina aukera bakarra izango duzue azterketa gainditzeko. Tituluak bi urteko balioa izango du.

➤ **dCAP** (*Digium Certified Asterisk Professional*)

Asterisken aditua baldin bazara, titulu honekintxe ziurtatuko dizute. Honetan, aurrekoan ez bezala, frogatu beharko duzu IP telefoniako esparru guztiak menperatzen dituzula. Azterketa teoriko eta praktikoa baten bidez frogatu beharko duzu menperatzen dituzula –dCAA ziurtagirian agertzen diren elementuez gain– PSTN komunikazioak, VoIP protokoloak, Dialplaneko ezarpen aurreratuak... Azterketa urtean behin egiten da Madrilen, eta ez du inolako iraungipen-aldirik.

2.1. Asterisk aplikazioan oinarritutako distribuzio batzuk

Lehen aipatu dugun bezala, zaila gertatu dakieke pertsona askori komunikazio-sistema bat komando-lerroaren bitartez konfiguratzeko, eta hori da, hain zuzen ere, Asterisken arazorik handiena. Hori dela eta, hainbat talde, erakunde eta enpresak lortu dute Asterisken oinarritutako beste distribuzio batzuk garatzea, instalazio- eta konfigurazio-prozesuak ahalik eta erraztenak izan daitezzen.



Hona hemen, Asterisk oinarri hartuta sortu diren **distribuzio garrantzitsuenak**:

○ **FreePBX**

FreePBX programa Schomooze enpresak sortu du Asterisken oinarritzko konfigurazioa errazteko. Berez, ez da distribuzio bat, web-nabigatzailean integratutako erabiltzaile-interfaze grafikoa baizik; horrela, irudi-formatua dela medio, erabiltzaileak modu sinple eta errazean egingo ditu luzapenak eta bestelako ezarpenak.

FreePBXen ezaugarri nagusiak:

- ✓ Asterisken oinarritutako distribuzio gehienek programa hau erabiltzen dute: ia ezinbestekoa da Asterisk modu azkar batean konfiguratzeko.
- ✓ Hala ere, modulu guztiak ez ditu onartzen; gainera, konfigurazio konplexuak egiteko komando-lerroa erabili beharko dugu.

○ **Elastix**

Elastix, Palosanto enpresak (Ekuador) sorturiko distribuzioa da. Izugarritzko komunikazio-zentroa sortu dezakegu, zeren eta Asterisk aplikazioaz gain beste

hainbat programa biltzen ditu: web-nabigatzailean integratutako erabiltzaile-interfaze grafikoa (FreePBXen oinarrituta), berehalako mezularitzako sistema (OpenFire), Faxerako euskarria (Hylefax) eta antzeko aplikazio komunikatiboak.

Gaur egun, Elastix da Asterisken oinarritutako distribuzioen artean gehien erabiltzen dena; hura bezala, librea eta doakoa da. All In One sistema da. Laguntza teknikorako talde oso garrantzitsua dago.

Elastix ez dator Asterisk ordezkatzera, baina tresna multzo bat eskaintzen digu lan arruntenak errazteko (komando-lerroak ez bezala).

Dena dela, baditu desabantailak: behar-beharrezkoak ez diren modulu asko instalatzen ditu aldez aurretik, eta, aparteko hainbeste osagai instalatuta, segurtasun-arazoak sortu daitezke. Bestalde, Elastixeko web-nabigatzailean integratutako erabiltzaile-interfaze grafikoa FreePBX baino askoz ere astunagoa da.

○ **Trixbox**

Asterisk@home izena zuen hasieran, eta Asterisk konfiguratzeko lehenengo All In One distribuzioa izan zen. Trixbox oso arrakastatsua da Estatu Batuetan: batetik, ingelesez sortu zelako; eta, bestetik, han daukatelako egoitza nagusia.

Gaur egun, ordea, atzean geratu da aplikazioa: plataformak ez du izan garapenik azken urteotan, osagaiak oso zaharkituta geratu dira, eta, Estatu Batuetatik kanpo, ez du inolako euskarririk.

○ **PBX in a Flash**

Aurrekoak bezala, hau ere Asterisk eta FreePBXen oinarritutako distribuzio berria da. Nahiz eta beste batzuek baino arrakasta gutxiago izan, ari da pixkanaka-pixkanaka merkatuan eragina izaten.

Izugarrizko tresna multzoa eskaintzen digu Asterisk era erraz eta arin batean instalatzeko, behar ez ditugun aparteko elementuak baztertuz. Gainera, itxura aldetik, geure gustura egokitu ditzakegu distribuzio honetan agertzen diren aplikazio guztiak.

○ **AsteriskNOW**

Distribuzio hau erabiliko dugu gida honetan. Digium enpresak sortutako komunikazio-zentroa delarik (Asterisk bezala), izugarrizko abantaila du.

Besteak bezala, beraren web-nabigatzailean integratutako erabiltzaile-entzafaze grafikoa FreePBX da. Ezaugarrien artean, honako hauek nabarmenduko ditugu:

- ✓ Distribuzioa oso arina da.
- ✓ Aplikazioen eguneratzeak oso azkar lortzen ditugu.
- ✓ Digiumen produktuekin bateragarria da erabat.
- ✓ Edozein arazo tekniko izanez gero, enpresa handi baten estaldura izango dugu.

3. AsteriskNOW nola instalatu

AsteriskNOW distribuzioa erabiliko dugu gure komunikazio-zentroa sortzeko, eta makina birtual baten bitartez eratuko dugu instalazioa.

Gure ordenagailuan bi sistema eragile izateak dituen oztopo eta arriskuak saihestu nahi baditugu, aukera ona izan daiteke birtualizazioa; hau da, gure ordenagailuak darabilen sistema eragilearen gainean, makina birtual bat instalatuko dugu: AsteriskNOW, gure kasuan.

Birtualizazioa software batek eskaintzen duen zerbitzua da, eta zerbitzu horrek, bere gainean abiaraziko den makina birtualari, hardware batek eskaintzen dituen oinarrizko zerbitzuak eskainiko dizkio aplikazioen bidez: disko-biltegi zerbitzua, sare zerbitzua, RAM edo memoria zerbitzua...

Bi aukera dauzkagu: jabetun softwarean, [VMware](#) da ezagunena; libreak, [Xen](#) edo [VirtualBox](#).

Guk VirtualBox softwarea instalatuko dugu; gero, posible izango dugu gure oinarrizko sistema eragilearen gainean AsteriskNOW instalatzea. VirtualBox berak eskaintzen duen morroia erabiliz, sistema eragileak disko moduan erabiliko duen fitxategi bat sortuko da, eta Windows, Linux edo Mac OS X-k sistema berriari eskainiko dizkion baliabideak zehaztuko dira (RAM memoria, prozesadore mota, audio euskarriak...).

Birtualizatzeak hainbat abantaila eskaintzen ditu. Gure ordenagailuan bi sistema eragile batera dauzkagunean ez bezala, ez dago zertan makina bat itzali bestea martxan jarri ahal izateko; eta sortu dugun makina birtuala deuseztatu nahi badugu, nahikoa da fitxategi bakar bat ezabatzea. Sistema eragile oso bat fitxategi batean dugunez, fitxategi hori hartu eta beste makina batean ere martxan jarri dezakegu.

Horregatik guztiatik, eta ikasgeletako ordenagailuetan lan egingo dugunez, makina birtuala izango da aukerarik onena gure proiektua aurrera eramateko.

3.1. VirtualBox eta AsteriskNOW

Lehendabizi, eskura izan behar ditugu erabiliko ditugun aplikazio guztiak; Interneteko web-orrialde hauetatik deskargatuko ditugu:



VirtualBox

<https://www.virtualbox.org/wiki/Downloads>

AsteriskNOW

<http://www.asterisk.org/downloads/asterisknow>

Behin VirtualBox instalatuta, prozesuarekin hasiko gara.


Makina birtualean instalatuko dugun distribuzioaren hardwareak ezaugarri hauek izango ditu:

IZENA: ASTERISK NOW


RAM MEMORIA: 1024 MB

DISKO GOGOR DINAMIKOA: 10 GB


Lehenengo, **Nueva** leihoa aukeratuko dugu, eta makina birtualaren morroia zabalduko da.




AsteriskNOW izango da gure makinaren izena, eta horixe jarriko dugu hurrengo pausoa.




RAM memoriaren txanda da; kontuan izan makinan jarriko dugunak eragina izango duela instalatuta daukagun sistema eragilean. Ordenagailuan dugun memoriaren arabera, gehiago edo gutxiago erantsiko dugu: gutxienez, 512 MB.



Lehendabiziko aldia denez, AsteriskNOW distribuzioa instalatzeko, disko gogor birtuala sortu beharko dugu. Eragiketaren helburua da hasierako disko gogorra lortzea, hori gabe makinak ez bailuke funtzionatuko.



Disko gogor birtuala sortzeko ezinbestekoa den konfiguratze morroia zabalduko zaigu. Lehenengo pantaila honetan, VDI formatua aukeratuko dugu, zeren eta VirtualBox softwarearekin bakarrik lan egingo baitugu. Beste aplikazio birtual batzuk erabiliko bagenitu, VMDK formatura jo beharko genuke.




Pauso honetan, disko gogor birtuala nola biltegitatu finkatuko dugu. Bi aukera daude:


- a) tamaina finkoko diskoa (hasieratik finkatutako eremua beteko du ordenagailuan)
- b) dinamikoki erreserbatutako diskoa (eremua automatikoki handituz joan daiteke, behar izan ahala)

Bigarrena erabiliko dugu.


Gure disko gogorraren eremua 10 GB-koa izango da: nahikoa, AsteriskNOW distribuzioak gutxieneko eskakizunak betetzeko.




Laburpenean agertzen diren datuekin ados bagaude, **Crear** botoia sakatu eta disko gogor birtuala sortuta izango dugu.




Makina birtuala sortzeko azken pausoa: konfiguratu ditugun parametro guztiak berretsiko ditugu, eta erabiltzeko prest egongo da makina.



Hurrengo irudian, guk sortutako AsteriskNOW makina birtuala ageri da. Hasieran, deskargatu dugun distribuzioa gure makina birtualean instalatu baino lehen, konfigurazioko azken hiru aldaketak egin beharko ditugu instalazio-prozesuan arazorik egon ez dadin.




Gure sistema eragilearen eta makinaren artean sare-lotura egoteko, **Configuración** > **Red** eta **Adaptador puente** aukera sakatu beharko dugu. Horrekin, web-nabigatzailean integratutako erabiltzaile-interfaze grafikoa erabili ahal izango dugu.




Prozesadorea dela eta, AsteriskNOW distribuzioaren kernelekin bateraezintasunik ez egoteko, PAE/NX aukera gaituko dugu.

Horretarako, **Configuración > Sistema > Procesador** leihora joko dugu.



Amaitzeko, jaitsi dugun AsteriskNOW distribuzioa makina birtualean sartuko dugu.


Configuración > Almacenamiento leihoan egingo dugu.




Orain, bai: dena dugu prest instalazio-prozesua hasteko.

3.2. AsteriskNOW instalatzeko parametroak


AsteriskNOW makina birtuala osatua dugunean, **Iniciar** botoia sakatuko dugu eta pantaila hau agertuko zaigu. Asterisk 11k duen FreePBX bertsioa hautatuko dugu.



Gure sarearen **TCP/IP konfigurazioa** egitean, **DHCP metodoa** erabiliko dugu. Behin instalazio-prozesua amaituta, IP finkoa ezarriko dugu FreePBX aplikazioaren bitartez.




Irudian ikusten den bezala, gure ordu-zona **Europe/Madrid** aukeran kokatuko dugu.




Hemen, root erabiltzailearen pasahitza sartuko dugu:


ERABILTZAILA: root
PASAHITZA: IRALE1234



Behin hori eginda, paketeen instalazioa hasiko da.



Minutu batzuk pasatu ondoren, instalazio-prozesua osatuta egongo da. AsteriskNOW komunikazio-zentroan sartuko gara, root erabiltzailearen bitartez.




```
Máquina Ver Dispositivos Ayuda
SHMZ release 6.5 (Final)
Kernel 2.6.32-431.el6.i686 on an i686

localhost login: root
Password: _
```

OHARRA


Kontuz: Linuxen oinarritutako sistemetan, pasahitzaren karaktereak ez dira agertzen.

Dena ondo baldin badoa, gure makina birtualean irudi hau agertuko da.



Makina birtualaren sarea konfiguratu dugunean, **Adaptador puente** aukeratuta, sistema eragileak eta makina birtualak sare berean lan egitea lortu dugu. Orduan, AsteriskNOWek emango digun IP helbidea ez da egon beharko gure sarearen barrutitik kanpo. Konfigurazioa ondo dagoen berresteko, metodo honekin egiazta dezakegu:

Sistema eragilean (Windows), **CMD** aplikazioa exekutatu beharko dugu, eta, **ipconfig** komandoaren bitartez, gure sarearen ezaugarriak agertuko dira.



Makina birtualean ere (AsteriskNOW) **ifconfig** komandoa exekutatzen badugu, gure sarearen ezaugarriak agertuko dira.


4. AsteriskNOW nola konfiguratu

AsteriskNOW distribuzioak emandako IP helbidearen bitartez, FreePBX aplikazioan sartzeko aukera izango dugu. Komunikazio-zentroaren oinarrizko konfigurazioak egiten hasi baino lehen, komeni da zenbait aldaketa egitea prozesua erosoago izateko.

Lehenik eta behin, hizkuntzaren oztopoa gainditzeko, Google Chrome nabigatzaileak tresna nahitaezkoa eskaintzen digu. Berez, FreePBX aplikazioa ingelesez garatuta dago, baina Googleren itzultzailea aktibatzen badugu, itzulpen zehatza lortuko dugu.

Hurrengo irudian ikusten denez, FreePBXen lan egiten hasi aurretik, erabiltzaile eskakizuna betetzera behartzen gaitu. Behin hori eginda, administratzaile modura, era guztietako kudeaketak egiteko ahalmena izango dugu. Honako hau beteko dugu:

ERABILTZAILEA:	admin
PASAHITZA:	IRALE1234
POSTA ELEKTRONIKOA:	██████████@gmail.com (Ezinbestekoa jakinarazpenak jasotzeko)



4.1. Administratzailearen panela

Behin administratzaile modura sartuta, aplikazioak eskaintzen dizkigun moduluak agertuko dira. Banan-banan aztertuko ditugu aukera guztiak, komunikazio-zentroa osatzeko gutxieneko ezagutzak eskuratzeko.

Lehenengo, oinarrizko konfigurazioak egingo ditugu. Horretarako, **Administración FreePBX** ikonoa sakatuko dugu:



Aurkezpen-pantailan, FreePBX sistemaren egoera azalduko zaigu:

A screenshot of the FreePBX system status page. The page title is 'Sistema FreePBX Estado'. It contains several sections: 'Avisos FreePBX' with three warnings, 'Estadísticas FreePBX' showing call statistics, 'Uptime' showing system and Asterisk uptime, 'Estadísticas del Sistema' showing processor, memory, and disk usage, and 'Estado del Servidor' showing the status of Asterisk, MySQL, Web, and SSH services.

Estadísticas del Sistema	
Procesador	
Carga media	0.00
JPC	2%
Memoria	
Memoria /p	33%
Intercambio	0%
Discos	
/	21%
/ Dev / shm	0%
/bot	11%
Redes	
eth0 recibir	0.28 KB / s
transmisión eth0	0.52 KB / s

Estado del Servidor	
Asterisk	Okay
MySQL	Okay
Servidor Web	Okay
Servidor SSH	Okay

Administración leihoan **System Admin** modulua sakatu, eta FreePBXen sarearen parametroak finkatuko ditugu. VirtualBoxen instalazioa egin dugunean, DHCP metodoa erabili dugu gure IP helbidea ezartzeko. Orain, aldiz, IP finkoaren bitartez, sistemaren elementu guztiak elkarrekiko harremana izango dute konfigurazioa galdu gabe. IP telefonoak funtzionatzeko, adibidez, bete beharko dugun ezinbesteko parametroa da.



DNS eta **Configuración de la red** erlaintzetan aldaketa hauek egingo ditugu:



FreePBX sarearen parametroak betetzean, gure sarearen barruti berean egongo direla berretsiko dugu.

IP ESTATIKOA: 192.168.1.40
SARE-MASKARA: 255.255.255.0
ATEBIDE-HELBIDEA: 192.168.1.1

NOW
Administración
Aplicaciones
Conectividad
Informes
Ajustes
User Panel
Aplicar Config
Salir: admin

System Admin

Configuración de la red

Interfaz de red:

Interface Name:

Protocolo IP:

IP estática:

Máscara de red:

Puerta de enlace:

Dirección MAC:

En Boot:

System Admin

- Anormal volumen de las llamadas
- DNS
- Detección de Intrusos
- Licencia
- Configuración de la red
- Configuración de notificaciones
- Gestión Portuaria
- Opciones de energía
- Almacenamiento
- Zona Horaria

DNS

- **127.0.0.1 (Gure LOCALHOST helbidea)**
- **8.8.8.8 (GOOGLE DNS ZERBITZUA)**
- **8.8.4.4 (GOOGLE DNS ZERBITZUA)**
- **192.168.1.1**

NOW
Administración
Aplicaciones
Conectividad
Informes
Ajustes
User Panel
Salir: admin

System Admin

DNS

Lista del servidor DNS


System Admin

- Anormal volumen de las llamadas
- DNS
- Detección de Intrusos
- Licencia
- Configuración de la red
- Configuración de notificaciones
- Gestión Portuaria
- Opciones de energía
- Almacenamiento
- Zona Horaria


OHARRA

Googleren DNS helbideen ordeztan, gure DNS propioak erabil ditzakegu.

Behin sarearen konfigurazioa aldatuta, **Configuración de notificaciones** erlaitzera joko dugu. Arazoren bat egonez gero, posta elektronikoaren bidez jakinaraziko digute.



Eta azkenik, komunikazio-zentroan FreePBXen konfigurazioak kudeatzeko administratzaile bat baino gehiago egotea nahi badugu, **Administración** leihoan, **Administradores** botoia sakatuko dugu.



Erabiltzaile berriaren datuak honako hauek izango dira:

ERABILTZAILEA: ZUZENDARIA
PASAHITZA: IRALE2014

The screenshot shows the Asterisk administration interface. At the top, there is a navigation bar with the following tabs: Administración, Aplicaciones, Conectividad, Informes, Ajustes, and User Panel. On the right side of the navigation bar, there is a button labeled 'Salir: admin'. Below the navigation bar, the main heading is 'Agregar administrador'. To the right of this heading, there is a button labeled 'Añadir usuario administrador'. Under the heading, there are two sections: 'Configuración general' and 'Restricciones de acceso'. In the 'Configuración general' section, there are two input fields: 'Nombre de usuario' with the value 'ZUZENDARIA' and 'Contraseña' with a masked password '.....'. In the 'Restricciones de acceso' section, there are three input fields: 'Nombre Departamento', 'Extensión del Rango' (with a dropdown arrow and the letter 'a' next to it), and 'Administrador de acceso'. The 'Administrador de acceso' dropdown menu is open, showing a list of options: Configuración Asterisk Logfile, Ajustes SIP Asterisk, Endpoint Manager, Configuración de Fax, Alta disponibilidad, Música en espera, Sets PIN, Enrutar los mensajes de congestión, Text To Speech Engines, Correo de voz de administración, User Panel, Panel de Usuario, Aplicar cambios Bar, Añadir Extensión, and TODAS LAS SECCIONES. At the bottom left of the form, there is a button labeled 'Enviar cambios'.

OHARRA

FreePBXen aldaketa guztiak aurrera eramateko, *Enviar cambios* erlaitza sakatzearekin ez da nahikoa; *Aplicar Config* botoia ere sakatu beharko dugu

Administración Aplicaciones Conectividad Informes Ajustes User Panel **Aplicar Config** Salir: admin

Editar administrador

Eliminar usuario: ZUZENDARIA

Añadir usuario administrador ZUZENDARIA

Configuración general

Nombre de usuario : ZUZENDARIA
Contraseña :

Restricciones de acceso

Nombre Departamento :
Extensión del Rango : a
Administrador de acceso :
Configuración Asterisk Logfile
Ajustes SIP Asterisk
Endpoint Manager
Configuración de Fax
Alta disponibilidad
Música en espera
Sets PIN
Enrutar los mensajes de congestión
Text To Speech Engines
Correo de voz de administración
User Panel
Panel de Usuario
Aplicar cambios Bar
Añadir Extensión
TODAS LAS SECCIONES

Enviar cambios

○ Luzapenak

Luzapenen bitartez, lantokian telefono-zerbitzua eskura izango duten departamenduak edo lanpostuak definituko ditugu. Bi pauso eman behar ditugu prozesua aurrera eramateko: alde batetik, AsteriskNOW komunikazio-zentroan, luzapenaren ezaugarri guztiak ezarriko ditugu (izena, zenbakia, dei-ahalmenak, ahots-postontzia...); eta bestetik, IP teknologiarekin bateragarri den telefono batean, luzapenaren eginbideak konfiguratu.

Merkatuan, gaitasun hori duten telefono asko aurkituko ditugu; batzuen eta besteen arteko aldeak zein diren argitzeko, lau multzotan banatuko ditugu:


▪ Hardwarean oinarritutako IP telefonoa

Telefono normal baten itxura izateaz gain, haren eginbeharrak ere betetzen ditu. AsteriskNOW bezala, gure sarean konektatu beharko da funtzionatu ahal izateko, kable baten bidez (R-45eko lotura) edo haririk gabe (WiFi). Horrela, gure aplikazioarekin lotura zuzena izango du.



▪ ATA (*analog telephony adapter*) egokigailuaren bidez konektaturiko telefono analogikoa

Betiko telefonoa baldin badugu, egokigailu honek aukera ematen digu seinale analogikoa IP sare batera konektatzeko.



▪ USB ataka duen IP telefonoa




Software baten bidez ordenagailuaren USB atakan konektaturiko telefonoa da. Berez, bakarrik mikrofonoa eta bozgorailua duen elementua da, baina telefono itxura duenez, erabiltzaileari askoz ere intuitiboagoa egiten zaio.

- **SOFTPHONEa**

Software bidezko telefono bat da. Ohiko telefono fisikoaren orde, ordenagailuan software jakin bat instalatuko dugu, telefono baten lana egiteko. Deiak egiteko, ezinbestekoa da ordenagailuaren bozgorailuak eta mikrofonoa erabiltzea, edo lan hori betetzen duen entzungailua izatea. Sistema hau erabiliko dugu gida honetan.

Hasi baino lehen, lantokian zenbat postu egongo diren definituko dugu. Kontuan izan, hasiera batean ezarri dugun bezala, AsteriskNOW sistemak eta lantokiko ordenagailu guztiak datu-sare berean lan egiten dutela.

Hori dela eta, ordenagailu bakoitzean softphone bat instalatuko dugu dagokion luzapenarekin. Behin hori eginda, posible izango da haien artean deiak egitea.



AsteriskNOWen luzapenen konfigurazio-prozesua hasteko, **Aplicaciones** erlaitza sakatu eta **Extensiones** botoia aukeratuko dugu:

The screenshot shows the AsteriskNOW administration interface. At the top, there is a navigation bar with tabs: Administración, Aplicaciones, Conectividad, Informes, Ajustes, and User Panel. The 'Aplicaciones' tab is selected, and a dropdown menu is open, showing options like Noticias, Recordatorio de la cita, Broadcast, etc. The main content area is titled 'Sistema FreePBX' and contains several widgets: 'Aviso' (Alerts), 'Estadísticas' (Statistics), 'Conexión' (Connections), and 'Estado del Servidor' (Server Status). The 'Estado del Servidor' widget shows the status of various services: Asterisk, MySQL, Servidor Web, and Servidor SSH, all of which are 'Okay'.

Lehendabiziko pantaila honetan, **Añadir Extensión** erlaitzaren bitartez, SIP protokoloa erabiltzen duen luzapena hautatuko dugu:

The screenshot shows the 'Añadir una Extensión' (Add an Extension) form. The form has a title 'Añadir una Extensión' and a button 'Añadir Extensión' in the top right corner. Below the title, there is a message: 'Por favor, elija su dispositivo a continuación y luego haga clic en Enviar'. There is a label 'Dispositivo' and a dropdown menu with 'Generic Device SIP' selected. Below the dropdown menu is an 'Enviar' button.

Luzapenaren ezaugarriak osatu baino lehen, erabiltzailearen datuak finkatuko ditugu:

ERABILTZAILEAREN IZENA: JON KEP
LUZAPENA: 101
LUZAPENAREN PASAHITZA: HEDAPENA101
AHOTS-POSTONTZIAREN PASAHITZA: 123456

- Añadir Extensión

Extensión usuario

Nombre para mostrar

CID Num Alias

SIP Alias

- Opciones de dispositivo

Este dispositivo utiliza la tecnología SIP.

secreto

dtmfmode

nat

- Correo de voz

Estado

Correo de voz contraseña

Dirección de correo electrónico

Pager Dirección de correo electrónico

Adjunto de correo electrónico

Juega CID

Juego de sobres

Eliminar correo de voz

VM Options

Contexto VM


Behin luzapena sortuta, softphone batean konfiguratuko ditugu parametroak. Merkatuan era askotako softphoneak daude; hala ere, guztiak elementu berdinetan oinarritzen dira. Kasu honetan, **ZOIPER** izeneko aplikazioa erabiliko dugu. Itxura onekoa da, multiplataforma, bideokonferentziak egiteko aukera ematen du, eta, gainera, doakoa da. Jaisteko, lotura honetara joko dugu:

<http://www.zoiper.com/en/voip-softphone/download/zoiper3>

Honako hau izango da ZOIPER aplikazioaren hasiera-pantaila. Azken belaunaldiko telefonoen izaera eta ezaugarri berdintsuak ditu; beraz, ez dugu inolako arazorik izango nola funtzionatzen duen ikasteko.


Hala ere, gida honetan, luzapenen erregistro-prozesua zein den azalduko dugu. Goi-mailako konfigurazioak lortu nahi baditugu, Zoiper enpresak ordainpeko PREMIUM deritzon aukera du. Horren bidez, deien estatistikak, grabazioak edo transferentziak egin ahal izango ditugu.

AsteriskNOW aplikazioarekin lotzeko eta dagokion luzapena ezartzeko, **Configuración** erlaitzean **Preferencias** botoira joko dugu.



Hona hemen **Preferencias** erlaitzeko pantaila nagusia. **Accounts > General** atalean, luzapenaren ezaugarriak idatziko ditugu. Kontuan izan **Dominio** laukian AsteriskNOWen ezarritako IP finkoa jarri beharko dugula.

Dena ondo egin dugula egiaztatzeko, bi elementu daude: alde batetik, SIP deritzon atalean gure ordenagailuren IPa agertuko da luzapenarekin lotuta; eta, bestetik, pantailaren eskuinaldean **Registrado** hitza ageri dela konturatuko gara.



OHARRA

Luzapenaren erregistroa egitean, arazoak gerta litezke. AsteriskNOWen IP finkorik ezarri ez badugu, softphonea irekitzen dugun bakoitzean eguneratu egin beharko dugu haren IPa, eta hori eragozpen handia da.

Behin lehenengo luzapena konfiguratuta, goazen bigarrenera. Ezaugarri hauek izango ditu:

ERABILTZAILEAREN IZENA: AITORIN
LUZAPENA: 102
LUZAPENAREN PASAHITZA: HEDAPENA102
AHOTS-POSTONTZIAREN PASAHITZA: 654321

NOW Administración ▾ Aplicaciones ▾ Conectividad ▾ Informes ▾ Ajustes ▾ User Panel Salir admin

Añadir Extensión SIP

Añadir Extensión
JON KEPA <101>

- Añadir Extensión

Extensión usuario [?]	<input type="text" value="102"/>
Nombre para mostrar [?]	<input type="text" value="AITORIN"/>
CID Num Alias [?]	<input type="text"/>
SIP Alias [?]	<input type="text"/>

- Opciones de dispositivo

Este dispositivo utiliza la tecnología SIP.

secreto [?]	<input type="text" value="HEDAPENA102"/>
dtmfmode [?]	<input type="text" value="RFC 2833"/>
nat [?]	<input type="text" value="Si"/>

- Correo de voz

Estado	<input type="text" value="Activado"/>
Correo de voz contraseña [?]	<input type="text" value="654321"/>
Dirección de correo electrónico [?]	<input type="text"/>
Pager Dirección de correo electrónico [?]	<input type="text"/>
Adjunto de correo electrónico [?]	<input type="text" value="sí"/> <input type="text" value="no"/>
Juega CID [?]	<input type="text" value="sí"/> <input type="text" value="no"/>
Juego de sobres [?]	<input type="text" value="sí"/> <input type="text" value="no"/>
Eliminar correo de voz [?]	<input type="text" value="sí"/> <input type="text" value="no"/>
VM Options [?]	<input type="text"/>
Contexto VM [?]	<input type="text" value="default"/>


Oraingoan, 3CX enpresak sortutako softphonea aukeratuko dugu. Nahiz eta bakarrik Windows sistema eragilean erabil dezakegun, aplikazio bikaina izan daiteke dituen performantziak ikusita: konfiguratzeko erraztasuna, soinu-kalitatea, euskara hizkuntza-euskarri izatea... Gainera, doako aplikazioa da. Lotura honetatik jaitsiko dugu:

<http://www.3cx.es/voip-telefono/softphone/>


Behin instalatu dugunean, **Hasierako menua** botoia sakatu eta **Aukerak** deritzon ikonora joko dugu:



Hurrengo irudian ikusten den bezala, softphonearen bideo-iturria gure ordenagailuaren web-kamera izango da; eta hizkuntza nagusia euskara izan dadin, dagokion paketea deskargatuko dugu.



Heldu da luzapenaren ezaugarriak finkatzeko unea. **Hasierako menuan** bertan, **Konexioa** ikonoa hartu eta datuak beteko ditugu. Nahiz eta erabiltzen dugun softphonearen arabera datuen izenak aldatu, guztiek dute mekanika bera.



Konexioaren konfigurazioa

Account name: AITORIN
Caller ID:

Egiaztagiriak
SIP kontuaren egiaztagiriak sartu

Luzapena: 102
ID: 102
Pasahitza: *****

Nere kokapena
PBX/SIP zerbitzariaren IP-a sartu

Bulego barruan - IP Lokala 192.168.1.40 PBX rena
 Bulegotik kanpo - kanpoko IP PBX rena

tunela erabili
3CX, RTP&SIP proxy-a erabiltzen du ataka bakar batean
Urrutiko PBX-aren IP Lokala:
Tunelaren pasahitza: *** Ataka: 5090

Use Outbound Proxy server
Required by some VoIP Providers. Specify IP or name.

Perform provisioning from following URL:
http://

Aukera aurretuak Ados ezeztatu

Dena ondo egonez gero, softphonearen pantailan **Eskegita** hitza azalduko zaigu. Aplikazioa deiak egiteko prest egongo da.



Eta azkenik, hirugarren luzapenak honako ezaugarri hauek izango ditu:

ERABILTZAILEAREN IZENA: MARKETING
LUZAPENA: 103
LUZAPENAREN PASAHITZA: HEDAPENA103
AHOTS-POSTONTZIAREN PASAHITZA: 20142014

Añadir extensión SIP

Añadir Extensión
JON KEPA <101>
AITORIN <102>

- Añadir Extensión

Extensión de usuario	103
Nombre para mostrar	MARKETING
CID Num Alias	
SIP Alias	

- Opciones de dispositivo

Este dispositivo utiliza la tecnología SIP.

secreto	HEDAPENA103
dtmfmode	RFC 2833
nat	Si


- Correo de voz

Estado	Activado
Voicemail contraseña	20142014
Dirección de correo electrónico	
Pager Email Address	
Adjunto de correo electrónico	<input type="button" value="sí"/> <input type="button" value="no"/>
Juega CID	<input type="button" value="sí"/> <input type="button" value="no"/>
Juego de sobres	<input type="button" value="sí"/> <input type="button" value="no"/>
Eliminar el correo de voz	<input type="button" value="sí"/> <input type="button" value="no"/>
VM Opciones	
Contexto VM	default

Hirugarren eta azken luzapena *MINISIPPHONE* softphonearen bidez bideratuko dugu. Hiru aplikazioetatik sinpleena da, eta ez du aparteko ezaugarririk. Konfigurazioa oso erraza da, eta disko gogorrean leku gutxi hartzen du. Lotura honetatik jaitsiko dugu:

```
http://www.myvoipapp.com/download/index.html
```

Luzapenaren erregistroa egiteko, **File** erlaitza aukeratu eta **SIP account** botoia sakatuko dugu; ikusten dugunez, bete behar diren esparruak inolako zalantzarik ez izateko moduan prestatuta daude.



Azkenik, aplikazioen arteko deiak egingo ditugu telefonoen konektagarritasuna egiaztatzeko.



○ **Taldeak**

Lantokiko departamentu batean luzapen bat baino gehiago egonez gero, talde bat sortzea aukera ona izango da deiak bideratzeko. Gida honetan dugun adibidean, bi atezainez (101 eta 102) osatutako departamentua dugu. Telefonoa atezain batek edo besteak hartzea berdin bazaigu, taldearen luzapenera (600) deituko dugu. Telefonoa lehenengo hartzen duen atezaina izango da solaskidea.



Taldeak sortzeko, gure komunikazio-zentroan **Aplicaciones** erlaitza aukeratu, eta **Grupos de timbre** botoia sakatu beharko dugu:

The screenshot shows the Asterisk administration interface. The top navigation bar includes 'Administración', 'Aplicaciones', 'Conectividad', 'Informes', 'Ajustes', and 'User Panel'. The 'Aplicaciones' menu is open, showing various options. The 'Grupos de timbre' option is highlighted in blue. Other visible options include 'Noticias', 'Recordatorio de la cita', 'Broadcast', 'Llame control de flujo', 'Grabación de llamadas', 'Gestión CallerID', 'Conferencias', 'Conferencias Pro', 'Directorio', 'Extensiones', 'Sigueme', 'IVR', 'Paging y Intercom', 'Park y anuncian', 'Aparcamiento', 'Cola de devolución de llamada', 'Colas', 'Set CallerID', 'Hora Condiciones', 'Grupos Tiempo', 'Las colas virtuales', 'Correo de voz Blasting', 'Notificaciones de correo de voz', 'Servicio de despertador', and 'Devolución de llamada Web'. The main content area displays system statistics, including 'Sistema FreePBX', 'Aviso' (Hay 1 malos destinos), 'Estadísticas del Sistema' (Procesador, Memoria, Discos, Redes), and 'Estado del Servidor' (Asterisk, MySQL, Servidor Web, Servidor SSH).

Irudian ikusten da islatuta aurreko paragrafoan jarritako adibidea.

Administración Aplicaciones Conectividad Informes Ajustes User Panel Salir: admin

Agregar grupo de timbre

Agregar grupo de timbre

Número Ring-Group: 600

Descripción del Grupo: ATEZAJNTZA

Estrategia Anillo: ringall

Duración del timbre (max 300 seg): 20

Lista de extensiones: 101
102

Extensión de selección rápida: (Pick extensión)

Anuncio: Ninguno

Reproducir música en espera?: Anillo

CID Nombre Prefijo:

Grabación de llamadas

Grabar llamadas: Siempre Bajo demanda Nunca

Destino si no hay respuesta:

Terminar llamada Colgar

Destino si no hay respuesta erlaitzera joko dugu, eta konfiguratzeke hainbat aukera izango ditugu telefonoa inork hartzen ez duen kasurako: deia amaitzea, beste luzapen batera desbideratzea, erantzungailu automatikoa irtetea...


○ SIP tronkalak

Ezinbestekoa da tronkalak sortzea AsteriskNOW eta lantokiko telefono-zenbakien arteko lotura egiteko. Horrela, gure sistemak ahalmena izango du lantokitik kanpoko telefono-zenbakietara deiak egiteko eta gure lantokian kanpotik datozen deiak jasotzeko.

Gaur egun, merkatuan era askotako teknologiak daudenez, telefono-zenbakiak lortzeko aukera asko ditugu. Esaterako: PSTN (oinarrizko sare telefonikoa), RDSI, WIMAX, zuntz optikoa, SIP hornitzaile baten bidez...

Guk bi motatako telefono-zenbakiak erabiliko ditugu, komeni delako bat baino gehiago edukitzea gure sistema ahaltsuagoa eta seguruago izan dadin: alde batetik, IP telefoniako hornitzaile batek emandako SIP zenbakia; bestetik, gure betiko sare telefonikotik lortutako zenbakia.

Hurrengo ataletan ikusiko dugu zein diren bi horien ezaugarriak eta bien arteko desberdintasunak.



➤ SIP hornitzaile baten bitartez

SIP hornitzaileak dira IP telefoniako erabiltzaileak eta telefono arrunta zein sakelako telefonoa duten erabiltzaileak telefono bidez konektatzen dituzten enpresak.

Ordenagailuaren edo Interneteko konexioaren bidez edozein telefonotara deitu nahi badugu, norbait behar dugu ahots-jario hori hartu eta betiko linea arrunten bidez transmititzeko. Horixe da IP telefoniako hornitzailearen lana.

Mota horretako deiak ez dira doakoak. Beraz, hornitzaile batean kontu bat ireki behar da eta bono batzuk erosi behar zaizkio, telefono finko eta sakelako telefonoetara deitu ahal izateko. Hornitzaile bakoitzak bere tarifak ditu. Egiten ditugun deien moten arabera, hornitzaile bakoitzak zer prezio eskaintzen duen aztertu behar dugu.



Prezioez gain, zerbitzuaren kalitatea ere kontuan hartu behar da. Eta erne ibili behar da; izan ere, baliteke hornitzaile jakin baten bidez herrialde batera eginiko deiak oso kalitate onekoak izatea, baina beste herrialde batera eginikoak oso kalitate txarrekoak izatea.

Komeni da zenbait hornitzaileekin probak egitea eta gustukoaren dugunarekin geratzea. Hornitzaile bat baino gehiago ere izan ditzakegu; hala, nora deitu behar dugun kontuan hartuta, hornitzaile bat edo bestea erabiliko dugu, eskaintzen duten kalitatearen eta prezioaren arabera.

Hala ere, sistema honek baditu desabantailak ere. Internet zerbitzuarekin arazoak baldin baditugu, deiak ezin izango ditugu egin. Horregatik, zer gerta ere, komeni zaigu Internetez kanpoko bigarren linea bat edukitzea.

Hornitzaile asko eta asko daude: SARENET, VOZELIA, NETELIP... Probatu egin behar dira, eta eskaintzen duten kalitatea nolakoa den ikusi. Dena dela, konfigurazio-prozesua egitean, guztiek datu berdinak eskatzen dizkigute:

- ERABILTZAILEA (NORMALEAN, TELEFONO-ZENBAKIA)
- PASAHITZA
- TELEFONO-ZENBAKIA
- HORNITZAILEAREN DOMEINUA (INTERNETEKO HELBIDEA)


Lehen aipatu dugunez, bakoitzaren beharren arabera aukeratuko dugu hornitzailea. Gure kasuan, GLOVIP deritzon enpresara joko dugu:

www.glovip.com


Lehenengo, GLOVIPen web-orrialdean erregistratuko gara. Gero, **MI GLOVIP** erlaitza sakatuko dugu:



GLOVIPek emandako erabiltzailearen eta pasahitzaren bitartez sartuko gara gure kontuan:



Lehenengo pantaila honetan, gure kontuaren laburpena agertuko da; konfigurazioaren datuak ikusteko, **Mis números de teléfono** botoia sakatuko dugu:



Hurrengo irudian ikusten denez, **Ver datos de configuración** leihora joko dugu:

Bienvenido, ANDONI

Salir

Qué es GLOVIP | Promociones | Planes y tarifas | Soporte | **Mi GLOVIP**

Mi GLOVIP

Estás en: Inicio > Mi GLOVIP > Mis números de teléfono

- Mis números de teléfono
- Mi credito
- Mis facturas
- Mis datos personales
- Planes / Bonos

Mis números de teléfono

Solicitar nuevo número **Solicitar**

51655 [redacted]	Baja	Modificar	Ver detalle	Ver datos de configuración
Usuario	Saldo asignado disponible	Plan contratado	Consumo último mes	Consumo acumulado anual
51655 [redacted]	€	Glovip Planes extras	€	€

Hona hemen gure kontuaren ezaugarriak eta AsteriskNOWekin deiak egiteko erabiliko ditugun datuak:

Bienvenido, ANDONI

Salir

Qué es GLOVIP | Promociones | Planes y tarifas | Soporte | **Mi GLOVIP**

Mi GLOVIP

Estás en: Inicio > Mi GLOVIP > Mis números de teléfono > Número: 516551481 > Ver datos de configuración

- Mis números de teléfono
- Mi credito
- Mis facturas
- Mis datos personales
- Planes / Bonos

Mis números de teléfono

Número: 51655 [redacted]

General	Asignar saldo	Modificar	Solicitar baja	Ver datos
----------------	---------------	-----------	----------------	-----------

Nombre de usuario: 51655 [redacted]
Usuario SIP: 51655 [redacted]
Contraseña SIP: 306 [redacted]
Servidor SIP: sx01.glovip.com
Codec: g.729, g.723, gsm, iLBC, A-law

Behin gure IP telefoniako hornitzailearen datuak ezagututa, prest gaude AsteriskNOWen konfiguratzeko. Horretarako, **Conectividad** erlaitza aukeratu eta **Trunks** botoia sakatuko dugu:

Lehenengo tronkala sortzeko, **ADD SIP trunk** hautatuko dugu:

The screenshot shows the AsteriskNOW administration interface. At the top, there is a navigation bar with tabs: Administración, Aplicaciones, Conectividad, Informes, Ajustes, and User Panel. The 'Conectividad' tab is selected, and a dropdown menu is open, showing options like DAHDI Canal DID, Digium Móviles, Rutas entrantes, Rutas de salidas, SIPSTATION, and Trunks. The 'Trunks' option is highlighted.

The main content area is titled 'Sistema FreePBX Estado' and contains several panels:

- Avisos FreePBX:** Shows system alerts, including a notification about a module update and a warning about Asterisk Password Manager.
- Estadísticas FreePBX:** A table showing call statistics:

Total de llamadas activas	0
Las llamadas internas	0
Las llamadas externas	0
Total de canales activos	0
- Conexiones FreePBX:** A table showing active connections:

Telefonos IP Online	2
IP Trunks Online	1
IP Trunk Inscripciones	1
- Uptime:** Shows system uptime: 5 minutos, Asterisk uptime: 3 minutos, and Última Recargar: 3 minutos.
- Estadísticas del sistema:** A table showing system statistics:

Procesador	0.17
Memoria	2%
Memoria App	36%
Intercambio	0%
Discos	28%
/ Dev / shm	0%
Blot	11%
Redes	
eth0 recibir	0.20 KB / s
transmisión eth0	2.10 KB / s
- Estado del servidor:** A table showing server status:

Asterisco	Okay
MySQL	Okay
Servidor Web	Okay
Servidor SSH	Okay

The screenshot shows the 'Añadir un tronco' (Add a trunk) page in AsteriskNOW. The navigation bar at the top includes tabs: Administración, Aplicaciones, Conectividad, Informes, Ajustes, and Panel de Control. The 'Conectividad' tab is selected.

The main content area is titled 'Añadir un tronco' and contains a list of options to add a trunk:

- Añadir troncal SIP
- Añadir Dahdi Tronco
- Añadir IAX2 Tronco
- Añadir ENUM Tronco
- Añadir DUNDi Tronco
- Añadir personalizada Tronco

On the right side, there is a button labeled 'Añadir Tronco' with a dropdown menu showing options: GO Canal (dahdi) and GLOVIP (SIP).

Hona hemen konfiguratu behar ditugun atalak:

